

ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN SARTZEKO ETA BERTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO MEREZIMENDUEN BALORAZIOA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA	
Tramitea:	FORU DEKRETUA PRESTATU AURREKO KONTSULTA
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA

Azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onetsi zen; besteak beste, merezimenduen balorazioa arautzen du lekualdatze lehiaketetan, izendapen askekoak ez diren unitate organikoetako burutzak edo zuzendaritzak betetzeko merezimendu lehiaketetan eta kategoriaz igotzeko lehiaketetan.

Martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua onetsi zen; besteak beste, baloratu beharreko merezimenduak ezartzen ditu sartzeko kategorietan.

Halaber, azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko arauak eman ziren; besteak beste, baloratu beharreko merezimenduak arautzen ditu oposizio-lehiaketetan eta merezimendu lehiaketa bidezko lekualdaketan.

Arau horiek berrikustea eta aldatzea planteatzen da, helburu hau betetzeko:

- Euskararen ezagutza baloratzeko irizpideak txertatzea merezimenduen baremoak erregulatzen dituzten arauetan, Nafarroako administrazio publikoetan sartu eta bertako lanpostuak betetzeko prozeduren tramitazioan aplikatu beharreko horietan, 216, 217 eta 218/2019 epaietan xedatutakoa betetzeko. Epai horiek eman ziren 528/2017, 42/2018 eta 497/2017 administrazioarekiko auzi-errekurtsoei erantzuna emateko, zeinak azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren aurka jarri baitziren. Foru dekretu horrek euskararen erabilera arautu zuen Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde autonomoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan, eta 2017ko azaroaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta aukeran dauden alternatibak, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek argitara eman behar dituzte kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamenduen proiektuak egin aurretik planteatutakoak.

Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, planteatutako arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete helbide elektronikoa honetara: **funcionpublica@navarra.es**. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.